

Dagoeneko 41 urte pasa dira 1976ko martxoaren 3az geroztik. 41 urte horietan, urtez urte, egunez egun, badira inoiz gertatu behar ez ziren gertaeren oroitzapena mantendu duten pertsonak. Jende horri esker, batzuetan publiko, gehienetan anonimo, gaude gaur hemen. Haien baloreak aldarrikatzen eta era beran, borroka kolektiboa eta kalea, aldaketa sozialaren palanka moduan.

Aldi berean, ziurrenik, hamarkada hauetan inoiz bizi izan ditugun kapitalismoaren garairik gogorrenen lekuko izan gara. Kapitalismo neoliberal honek oreka sozialerako edozein aukera zapuztu du. Bere ahaleginik handiena honako hau izan da: pobrezia sufritzen dugunok, elkarren etsai bezala ikusi nahi izatea. Bere helburu zitalak izkutatzeke norberekoikeria sustatzen duen kapitalismoa: gutxi batzuen eskuetan ahalik eta kapital gehiena batzea, honek ekartzen duen desorekarekin. Munduan barrena lasai asko dabilen kapitalismoa, eta, Mediterraneo itsasoa hilerri bihurtzeko gai izateaz gain, Trump moduko jendilajea teoriarik garatutako herrialde bateko gidari modura jartzen duena. Urtetik urtera transmititu nahi ditugun baloreak, martxoaren 3ko oroimen egunaren harira, guztiz kontrakoak dira, elkartasuna bizitzaren ardatz jarrita.

41 urte hauetan, klase sozial berri bat sortu da. Prekarietatea. Martxoaren 3 hura bizi genuenok, edo, hurrengo urteetan jaio ginenok, erronka handia dugu. Ukaezina da gure seme-alabei guk jasotakoa baino jendarte desorekatuago bat uzten ari garen belaunaldia garela. Horregatik, negar egiteak ez du ezertarako balio. Gure ondorengoei berdina gerta ez dakien, borrokatzea da benetan balio duena. Prekarietatean bizi diren gazteak ahalduntzeko, beraien erabakiak hartzeko eta jendartea aldatuko duen

motorra izan daitezen baldintzak sortzeko zeregin historikoa dugu. Amore ematea ez da aukera bat. Gure etsipena kapitalismoaren garaipena izango litzateke. Bide honetan, mugimendu feministak asko irakasten digu. Jendarte guztiak ikasi beharko luke berak egindako lanetik.

Egunero bizi ditugu erasoak. Guztiak hemen banakatzea ezinezkoa da. Aurten, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren aurka jasotzen ari garen eraso politiko zein mediatikoan oinarrituko gara (DSBE). Jendarteko pertsona ahulenez jasotzen duten errenta. Iruzurrerako aukera minimoa duen errenta, goizero eskaintzen dizkiguten titularretatik haratago. Inork oparitu ez zigun errenta, borroka kolektiboari, sozial eta sindikalari esker lortu zena baizik, eta, gainera, greba orokor bat ekarri zuena orain dela ia 20 urte. Enpresa munduak gustoko ez duen errenta da, soldaten jaitsiera eta muturreko prekarietatea moteltzen dituen. Eusko Jaurlaritzaren Lanbideen arteko Gutxieneko Soldadari (LGS) egiten zaion erreferentziarekin bukatzeko legeak aldatzen aritea langile guztiei zuzendutako eraso da, prekarietateari batez ere. Erabaki honen aurkako borroka hasi besterik ez da egin. Kanean ikusiko gaituzte.

Martxoak 3 honek ere badu konnotazioa berezia. Egia, justizia eta erreparazioa bilatzeko urteetako borroka jarraipena du. 1976ko martxoaren 3an gertatu zena argitzeko jarritako helegitearen artxibatzeak aipamen berezia merezi du. Herri honetako justizia justua izatetik urrun dago. Baina justiziaren bilaketa ez da herri honetan bukatuko. Hainbat kasutan bezala, honetan ere nazioarteko justiziaren bidea lantzea aukera onena izango da. Bidea luzea da, baina urratsak irmoak. Ez egiak, ez justiziak ezta erreparazioak ere ez dute preskribatzen.

3 de Marzo

1976 - 2017

41 años de recuerdo 41 AÑOS DE INDIGNACIÓN

Han pasado 41 años desde aquel 3 de marzo de 1976. Han sido 41 años en los que han existido personas que han mantenido, año a año, día a día, el recuerdo de unos hechos que nunca debieron ocurrir. Gracias a esa gente, a veces pública, y en la mayoría de los casos anónima, hoy estamos de nuevo aquí. Reivindicando sus valores. Reivindicando la lucha colectiva, la calle, como palanca de cambio social.

Seguramente han sido, al mismo tiempo, las cuatro décadas de capitalismo más salvaje que hayamos vivido. Un capitalismo, en fase neoliberal, que ha destrozado cualquier mínimo equilibrio social. Un capitalismo que dedica gran parte de sus esfuerzos a que las gentes que sufrimos la pobreza, nos veamos entre nosotras mismas como enemigas. Un capitalismo que fomenta el individualismo para esconder sus perversos objetivos: la acumulación de capital en pocas manos y la desigualdad que ello conlleva. Un capitalismo que recorre el mundo y que es capaz tanto de convertir el mar mediterráneo en un cementerio, como de colocar personajes tan despreciables como Trump como máximos mandatarios de países que se suponen desarrollados. Los valores que queremos trasladar año a año, en torno a la conmemoración del tres de marzo, son radicalmente los contrarios, colocando la solidaridad en el centro de la vida.

En estos 41 años, se ha creado una nueva clase social. El precariado. La gente que vivimos aquel 3 de marzo, o, incluso que nacimos en los años posteriores al mismo, tenemos un gran reto. Es incuestionable que estamos dejando una sociedad más desigual a nuestros hijos que la que heredamos. De nada nos sirve llorar por ello. Lo que realmente sirve es que luchemos porque no les ocurra lo mismo a las nuevas generaciones. Tenemos la labor histórica de crear las condiciones para que el precariado, la juventud, se empodere, tome sus decisiones, y se vea a sí mismo como motor de cambio social. Tirar la toalla no

es una opción. Nuestra resignación sería el triunfo final del capitalismo. En ese recorrido, el movimiento feminista nos enseña mucho. Toda la sociedad debemos aprender de sus prácticas.

Estamos sufriendo ataques todos los días. Desglosar todos aquí es imposible. Este año, nos queremos centrar en los ataques políticos y mediáticos que estamos sufriendo en torno a la Renta de Garantía de Ingresos (RGI). Una renta que la cobran las gentes más desfavorecidas de la sociedad. Una renta en la que, más allá de los grandes titulares que nos avasallan cada mañana, tiene unos márgenes de fraude mínimos. Una renta que no nos la regaló nadie, y que fue fruto de la lucha colectiva, social y sindical, y por la que, entre otras cosas, hicimos incluso una huelga general hace casi 20 años. Además de todo esto, es una renta que no les gusta nada a la clase empresarial, ya que hace de freno a la caída salarial y a la precariedad más extrema. Que el Gobierno Vasco este modificando leyes para eliminar la referencia de la misma al exiguo Salario Mínimo Interprofesional, es un ataque a toda la clase trabajadora en general, y al precariado en particular. La lucha contra esta decisión no ha hecho sino comenzar. Nos van a ver en las calles.

Este tres de marzo, también tiene una connotación especial. Los años de lucha en pos de la verdad, justicia y reparación, están teniendo nuevos capítulos. El sobreseimiento de la querrela interpuesta para que se procediera a la investigación de los hechos ocurridos el 3 de marzo de 1976, merece una mención especial. La justicia en este país dista mucho de ser justa. Pero la búsqueda de la justicia no se va a quedar aquí. Como en otros muchos temas, la apelación a la justicia internacional se antoja como la fórmula más propicia para buscarla. El camino es largo, pero los pasos firmes. Ni la verdad, ni la justicia, ni la reparación, prescriben.

